



SENIDE ETA HURBILEKOEN AKONPAINAMENDUA OSPITALERATUTAKO PAZIENTEEI

2020ko AZAROA

Asistentzia-jarduera gizatiartua egin ahal izateko eta, aldi berean, gure ospitaleratze-eremuetan birusa transmititzeko arriskutik babesteko (pazienteei, profesionalei eta baimendutako laguntzaileei beraiei eragiten baitie), honako neurri hauek ezartzen dira, **nahitaez eta zorrotz bete beharrekoak**.

Arau orokor gisa, **Osakidetzako ospitaleetara sartzen utzi behar zaien pertsona bakarrak laguntzaileak dira, bai eta, zitazio-bolantearen bidez behar bezala identifikatu** eta egiaztatu ondoren, ospitalez kanpoko kontsultaren batera doazen pertsonak ere. Beraz, ospitalera “bisitan” etortzen diren pertsonak ezingo dira sartu.

Era berean, beren lanpostura joaten diren langile guztiek Txartel Profesional Elektronikoen (TPE) bidez **irekiera automatikoa duten langileen sarrerak erabili beharko dituzte**. Ate nagusietatik sartuz gero, nahitaez erakutsi behar da TPE. Ingresatutako ahaideak dituzten langileek laguntza-arau orokorrak errespetatu behar dituzte, eta beren lan-ordutegiaren barruan eta/edo akonpainamendu-baimenik gabe inguruko pazienteak “bisitatzea” saihestu behar dute.

LAGUNTZAILEA: ekintza hauetako batzuk edo guztiak egiten dituen paziente baten senidea edo hurbilekoa: laguntzailea, sostengu emozionala ematen du, bere zaintzetan laguntzen du, pazientearekin parte hartzen du (edo haren ordezkaria da) zainketen planifikazioan eta erabaki medikoak hartzean.

BISITARIA: ospitale batera paziente bat bisitatzerara joaten den pertsona, laguntzaile-izaerari erantzuten ez diona.

PREMISA OROKORRAK:

Zaintzaile edo hurbileko senide **bakar bat izango da** akonpainamendu horren erreferentea, eta hari emango zaio gidabaimena. Haren izena eta NANA, pazientearen izenaren ondoan jasoko dira baimen-agirian.

Baimendutako laguntzaileak babesteko eta urruntzeko higie-neurrien jarraipen zehatza egingo da ([ikus I. eranskina](#)).

Laguntzaileak talde medikoaren/erizainaren jarraibideei jarraitu beharko die (tenperaturaren autokontrola edo Covid-19k kutsatutako beste sintomatologia susmagarri bat), eta lagun egiteko baimena eman beharko du, banakako erantzukizun gisa ([II. eranskina](#)), behin bakarrik, lehen akonpainamendua hasi aurretik.

Akonpainamenduaren denborak ez du ordu mugarik izanen. Pazienteak behar dituen orduak izanen dira, laguntzaileak erabil ditzakeenak. UMI bezalako unitate berezietan, bisita orduak unitateak berak ezarritako ordu muga izanen dute.



Etengabeko arreta behar duten eta laguntzaile bakar batentzat gehiegizko ahalegina eskatzen duten pazienteen kasuan soilik izango dute bi pertsona desberdinentzako baimena, egun berean ospitalera ez joateko baldintzarekin. Halaber, bizitzaren azken orduetan, gehienez ere 3 senideri lagundu ahal izango zaie, pazientea banako gelan dagoela.

Orain arte lortutako esperientziak erakutsi duenez, kasu askotan ospitale barneko agerraldi bat izan da laguntzailea. Horregatik, akonpainamendu bat baimendu aurretik, ZEHATZ-MEHATZ BALORATU BEHAR DA HAREN BENETAKO BEHARRA, gaixo eta langileentzat izan dezakeen arriskuari dagokionez.

Ospitaleratutako pazienteen akonpainamenduari dagokionez, bi egoera bereizi dira: COVID + eremuak eta COVID+ eremuak.

COVID+ eremuak

Akonpainamenduaren murrizketa osoa izanen da, bost kasu hauetan izan ezik:

- ✓ Bizitzaren amaiera
- ✓ Bizitzaren printzipioa
- ✓ Ospitaleratutako adingabeak
- ✓ Pertsona ezinduak
- ✓ Nahaste-sindromea duten pazienteak, desorientatzen direnak, asaldutzen direnak edo, behar bezala justifikatutako beste edozein arrazoiengatik, gelan laguntzaile baten presentzia jarraitua behar dutenak, hurbileko heriotzarik aurreikusten ez bada ere.

Laguntzaileek kasu bakoitzerako egokiak diren neurriak eta mugatzeak hartu beharko dituzte eta egokiak diren NBEak erabili.

COVID ez diren eremuak

Gaixoaren egoera klinikoa eta inguruabarrak baloratzea, akonpainamenduaren beharra eta, hala badagokio, intentsitatea zehazteko: koadro klinikoaren larritasuna, egonaldi-egunen aurreikuspena, gaixoaren egoera emozionala, batez ere pertsona nagusia edo zaurgarria bada.

Erabat debekatuta dago pazienteak beren gelatik ateratzea, sendatze-prozesuaren barruan, beharrezkotzat jotzen ez bada behintzat. Kasu horietan, mediku arduradunak Aurreneurrien Zerbitzuari jakinaraziko dio, eta hark zehaztuko ditu irtenaldia puntualki egin ahal izateko baldintzak eta neurriak. Gertaera hori pazientearen historia klinikoan islatu beharko da.



JARDUTEKO PROZEDURA:

Pazientea ospitaleratzen denean, harrera-zerbitzuak (orokorrak edo larrialdietakoak) erregistraturik utziko du senidearen harremanetarako telefonoa. Erizaintza Unitateak akonpainamendu beharra baloratuko du eta senide edo hurbilekoarekin harremanetan jarriko da. Unitatera lehen bisita egitea erabakiko da, eta bertan:

- Babes-materiala (maskarak, mantalak, eskularruak, eskuetako higieena...) eta unitatean/ospitalean zirkulatzeko ([ikus I. eranskina](#)) erabili behar diren nahitaezko arauak azalduko zaizkio senideari/hurbilekoari.
- laguntzaileari baimen-agiria emango zaio (baimendunak eta [II. eranskina](#) baimentzen duen pertsonak sinatua). Agiri horrekin, ateko zeladorearengana joko du, sarrera-txartela eman diezaion. Baimen-dokumentuaren kopia bat gordeko dugu unitatean, gaixoari alta eman arte.
Baimena nori eman zaion eta harremanetarako telefono-zenbakia Osabide Globalen jasota uztea (ikus erregistro-dokumentua Osanaian).

Pazientearen alta:

- Dokumentua suntsitu egingo dugu laguntzaileari eskatuko diogun sarbide-txartelarekin batera.



ERANSKINA I:

OSPITALERATUTAKO PAZIENTEEI LAGUN EGITEKO SENIDE ETA LAGUNEK JARRAITU BEHARREKO ARAUAK

COVID+ eremuak

- Sukarra, arnas sintomak edo Covidekin bateragarriak diren bestelako sintomak badituzu, ez duzu ospitalera joan behar.
- Lagun bakarra onartuko da gaixo eta egun bakoitzeko, babes-neurriak eta urruntze-neurriak zehatz-mehatz betez gero. **Ospitalera sartzeko, nahitaezkoa da NANA eta hari laguntzeko baimena aurkeztea.**
- Ahal dela, senide/laguntzaile bera izan behar da beti.
- Akonpainamenduaren denborak ez du ordu mugarik izango. Pazienteak behar dituen orduak izango dira, laguntzaileak erabil ditzakeenak. UMI bezalako unitate berezietan, bisita orduak unitateak berak ezarritako ordu muga izango dute.
- Ate nagusitik sartuko da, ongi jarritako **maskara kirurgikoa** erabiliz, eta eskuak garbituko ditu. **Ezin izango da maskara kendu ospitalean dagoen bitartean.** Maskara kirurgikorik ez badu, bat emango zaio sarreran.
- Igogailuan dagoen solairura badoa, adierazitako edukiera beteko du, eta segurtasun-distantziak mantenduko ditu.
- Unitatean sartu aurretik, eskuak garbituko dira.
- Behar diren NBEak jarri beharko dira, plantako langileen laguntzarekin, langileak berak adierazitako tokian, eta haiekin egongo dira lanean lagun egiten den bitartean.
- **Denbora guztian gelan egongo da, irten gabe.**
- Pazienteak eskatzen dituen objektu pertsonalak edo aisialdikoak ekartzen baditu, horiek ezin izango dira unitatetik atera, gaixoari alta eman arte.
- Unitatetik atera aurretik, langileek adierazitako tokian kenduko da NBE, eta berriro garbituko dira eskuak.

Neurri horien guztien helburua COVID-19 eragiten duen birusaren hedapena saihestea da; beraz, ezinbestekoa da tartean diren guztien erabateko laguntza, eta eskertzen dugu.



OSPITALERATUTAKO PAZIENTEEI LAGUN EGITEKO SENIDE ETA LAGUNEK JARRAITU BEHARREKO ARAUAK

COVID ez diren eremuak

- Sukarra, arnas sintomak edo Covidekin bateragarriak diren bestelako sintomak badituzu, ez duzu ospitalera joan behar.
- Lagun bakarra onartuko da gaixo eta egun bakoitzeko, babes-neurriak eta urruntze-neurriak zehatz-mehatz betez gero. Ospitalera sartzeko, **nahitaezkoa da NANA eta hari laguntzeko baimena aurkeztea.**
- Ahal dela, senide/laguntzaile bera izan behar da beti.
- Akonpainamenduaren denborak ez du ordu mugarik izango. Pazienteak behar dituen orduak izango dira, laguntzaileak erabil ditzakeenak. BMU bezalako unitate berezietan, bisita orduak unitateak berak ezarritako ordu muga izango dute.
- Ate nagusitik sartuko da, ongi jarritako **maskara kirurgikoa** erabiliz, eta eskuak garbituko ditu. **Ezin izango da maskara kendu ospitalean dagoen bitartean.** Maskara kirurgikorik ez badu, bat emango zaio sarreran.
- Igogailuan dagoen solairura badoa, adierazitako edukiera bete behar du, eta segurtasun-distantziak mantendu behar ditu.
- Unitatean sartu aurretik, eskuak garbituko dira.
- Eskuetako higieena maiz egin eta beste pertsona batzuekiko segurtasun-tartea mantendu
- Ezin izango da gelatik irten, eta ezingo du korridoreetan paseatu, ez eta beste paziente batzuk bisitatu ere.
- Uneren batean ospitaleko kafe-makinak erabili behar badira, ahalik eta denbora gutxien egon inguruan, eta utzi segurtasun-tartea gainerako pertsonetikiko.
- Gelaren gortinak beti egon behar du zabalduta, espazioak pazienteen oheen artean fisikoki bereizteko.

Neurri horien guztien helburua COVID-19 eragiten duen birusaren hedapena saihestea da; beraz, ezinbestekoa da tartean diren guztien erabateko laguntza, zinez eskertzen duguna.



Osakidetza

ARABAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ARABA



ERANSKINA II:

**COVID-19KO
OSPITALERATUTAKO
LAGUNTZEKO BAIMENA**

**PANDEMIAN
PERTSONEI**

**AUTORIZACIÓN PARA EL
ACOMPANIAMIENTO DE PERSONAS
HOSPITALIZADAS DURANTE LA PANDEMIA
DE COVID-19**

**OSPITALERATUTAKO
DATUAK:**

PERTSONAREN

DATOS DE LA PERSONA HOSPITALIZADA:

LAGUNTZAILEAREN DATUAK:
Izen eta abizenak:

DATOS DE PERSONA ACOMPAÑANTE:
Nombre y apellidos:

NAN/AIZ/Pasaportea:

DNI/NIE/Pasaporte:

**Honako konpromiso hauek hartzen ditut
laguntzaile gisa baimendua izateko:**

**Adquiero los siguientes compromisos para
poder ser autorizado como acompañante:**

- ✓ **Laguntza-aldiaren aurreko 14 egunetan sintomarik gabe egon izana.**
- ✓ **Pazientea eta beste pertsona batzuk infekziotik babesteko ematen zaizkidan jarraibide guztiak betetzea.**
- ✓ **Solairu edo unitatearen funtzionamendura egokitzea, adierazitako arauak betez (ordutegiak, zirkulazioa, portaera, etab.).**

- ✓ **Haber estado asintomático/a durante los 14 días anteriores a cada acompañamiento.**
- ✓ **Cumplir todas las indicaciones que se me den para proteger al paciente de contraer infección, así como a terceras personas**
- ✓ **Adaptarme al funcionamiento de la planta o unidad, cumpliendo las reglas que se me indiquen (horarios, circulación, comportamiento, etc.)**

Laguntzailearen sinadura:

Firma del acompañante:

.....n, 202...0ko.....aren.....(e)an

En....., a.....de.....